Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

**ENPLEGUA SUSTATZEKO 2025KO TOKIKO EKINTZEN PROGRAMAREN BARRUAN IRUNGO UDALAK ETA TXINGUDIKO ZERBITZUAK-SERVICIOS DEL TXINGUDI SAK ENPLEGUA SUSTATZEKO JARDUERAK DIRUZ LAGUNTZEKO HITZARMENA**

**CONVENIO PARA LA SUBVENCIÓN DE ACTUACIONES DE FOMENTO DE EMPLEO POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE IRUN Y TXINGUDIKO ZERBITZUAK-SERVICIOS DEL TXINGUDI SA, DENTRO DEL PROGRAMA DE ACCIONES LOCALES DE PROMOCIÓN DE EMPLEO 2025**

Irunen, sinaduraren datan

En Irun, a la fecha de la firma

Batetik, Cristina LABORDA and., Irungo Udaleko alkate-lehendakaria den aldetik.

De una parte, el Ilma. Sra. Dña. Cristina LABORDA, en su calidad de Alcaldesa-Presidente del Ayuntamiento de Irun.

Bestetik, Leire ZUBITUR and., Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A, TXINZEReko kudeatzailea, honen izenean eta ordezkaritzan, IFZ A20214011 eta Olaberria auzoa 18, Irun helbidea duena.

De otra parte, Dña. Leire ZUBITUR, Gerente, en nombre y representación de Txingudiko Zerbitzuak- Servicios del Txingudi S.A, TXINZER, cuyo NIF es A20214011 y con dirección en Olaberria auzoa, 18 Irun.

ESKU-HARTZAILEAK

INTERVIENEN

Biek ere beren karguek berezkoak dituzten funtzioak betez eta hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa aitortuz elkarri, eta horretarako,

Todos ellos en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad de otorgar el presente Convenio y a tal efecto,

AZALTZEN DUTE

EXPONEN

·Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2025ko uztailaren 15eko ebazpenaren bidez (EHAA, 144 zenbakikoa, 2025ko uztailaren 31koa), 2025ko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdia argitaratu zen, zeina Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak onetsi zuen.

·Que, por medio la Resolución de 15 de julio de 2025, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, (BOPV nº 144 del 31 de julio de 2025) se publicó la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2025, aprobada por Acuerdo del Consejo de Administración de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

·Irungo Udala programa horretara atxiki zen, eta zehaztu zuen zer langile kontratatu behar zituen haren kontura eta bere mendeko entitateen eta bere eragin

·Que, el Ayuntamiento de Irun se adhirió a dicho programa y definió sus necesidades de personal a contratar con cargo al mismo así como de entidades dependientes y entidades

esparruko entitate sozialen kontura, eta, ildo horretatik, 38 langabe kontratatzeko lankostuen zati bat ordaintzeko diru-laguntza eskatu zuen. Kontratazio guztietatik, 3 egitea dagokio Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A.ri:

1. Hornikuntza eta saneamedu-sareetako erabilera anitzeko langileak: 6 hilabeteko lanaldi osoko 2 kontratu.

2. Finantza- eta merkataritza-sailaren administrazio-laguntza: 6 hilabeteko %82ko lanaldi partziala duen kontratu bat.

·2025ko urriaren 13an, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak jakinarazi zuen eskatutako laguntza emango zuela. Besteak beste, iraupen desberdineko lan-kontratuak eginda langabe horiek kontratatzeko diru-laguntza. Zenbateko horretan sartzen zen Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A.k hiru pertsona kontratatzea.

·Udalaren aurrekontuan kreditua esleitu dela, kredituak gaitzeko araubideko kredituen aldaketa egokiaren bidez, eta transferentzia arrunten kapituluan beharrezkoak diren aurrekontu-aplikazioak zuzkitu direla, erakunde horrek egin beharreko kontratazioak finantzatzeko.

·Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen horretan xedatutakoaren arabera, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdia argitaratu zen. Zehatzago, haren 2.4.1 artikuluko 2. paragrafoaren arabera, “kontratazio horiek tokian-tokian sustatuko dira, eta tokiko erakundeek egingo dituzte zuzenean, edo haien mendeko erakundeek, edo, bestela, zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen

sociales que forman parte de su área de influencia, solicitando para ello una subvención de parte del coste laboral originado por la contratación de un total de 38 personas desempleadas. Del total de las contrataciones, 3 corresponden a contrataciones a realizar por parte de Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A:

1. Operarios/as polivalentes redes de abastecimiento y saneamiento: 2 contratos a jornada laboral completa de una duración de 6 meses.

2. Apoyo administrativo departamento financiero y comercial: 1 contrato a jornada laboral parcial de 82% y de una duración de 6 meses.

·Que, en fecha 13 de octubre de 2025, Lanbide- Servicio Vasco de Empleo comunicó la concesión de la ayuda solicitada que, entre otras iniciativas, comprendía la subvención de la contratación de estas personas desempleadas, mediante contratos laborales de diferente duración. Se incluían en esta cuantía la contratación de las tres personas por parte de Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A.

·Que en el presupuesto municipal se ha consignado crédito, mediante la oportuna modificación de créditos en régimen de habilitación de créditos, dotando las aplicaciones presupuestarias necesarias en el capítulo de transferencias corrientes con el fin de financiar las contrataciones a realizar por la citada entidad.

·Que de acuerdo a lo dispuesto en dicha resolución, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, se procede a la publicación de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo, y más concretamente en párrafo 2º del artículo 2.4.1 de la misma, “dichas contrataciones serán promovidas desde el ámbito local y se realizarán bien directamente por las entidades locales, incluidas las entidades dependientes de las

diharduten irabazi asmorik gabeko erakundeek, betiere Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldan izena emanda badaude (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean arautua), eta haiekin proiektua gauzatzea hitzartzen bada edo proiektua kontratu bidez haiei esleitzen bazaie".

mismas o bien a través de entidades sin ánimo de lucro dedicadas a la integración socio-laboral de personas con especiales dificultades que se encuentren inscritas en el censo de organizaciones del tercer sector social de Euskadi (regulado en la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi), con las que se acuerde mediante convenio o a las que se adjudique por contrato la ejecución de los proyectos".

·Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 28. artikuluaren arabera, hitzarmenak izango dira zuzenean ematekoak diren diru-laguntzak bideratzeko tresna arruntak, haiei buruzko araudiak dioenaren kalterik gabe.

·Que el artículo 28 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, dispone que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar las subvenciones de concesión directa, sin perjuicio de lo que a este respecto establezca su normativa reguladora.

·Irungo Udalari diruz laguntzen zaion aldi baterako kontratazio honen helburua da gizartetik baztertuta dauden eta Irungo udal-barrutian bizi diren pertsonak gizarteratzea eta lan-munduan sartzea, eta horrek zuzeneko onura dakarkio hiriari.

·Que el objeto de esta contratación temporal que le ha sido subvencionada al Ayuntamiento de Irun, se circunscribe a la inserción socio-laboral de las personas en situación de exclusión social que residen en el término municipal de Irun, viéndose la ciudad directamente beneficiada por esta labor.

Horregatik guztiagatik, esku-hartzaileek hitzarmen hau sinatzen dute, eta hona horren hizpaketak:

Por todo lo anterior, los intervinientes suscriben el presente Convenio que someten a las siguientes:

HIZPAKETAK

ESTIPULACIONES

LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA

PRIMERA- OBJETO DEL CONVENIO

Hitzarmen honen xedea da Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.Ak hiru pertsona kontratatzea Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2025ko uztailaren 15ko ebazpenak enplegua sustatzeko arautzen duen programaren esparruan; ebazpen horren bidez argitaratzen da enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntzen deialdia.

El objeto de este convenio es el de la contratación, por parte de la Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A. de tres personas en el marco del programa de fomento de empleo regulado por la Resolución de 15 de julio de 2025, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo.

Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A.k beharrezkoak diren jarduketak egingo ditu lan-munduan

La Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A. realizará las actuaciones necesarias para aumentar la empleabilidad

sartzeko zailtasun bereziak dituzten hiru pertsonaren enplegagarritasuna handiagotzeko, haien prestakuntza eta/edo gaitasun pertsonalak eta motibazioa areagotuko dituen aldi baterako lan-esperientzia eskainiz.

de tres personas con dificultades especiales de inserción laboral a través de una experiencia temporal de trabajo que potencie su cualificación y/o sus competencias personales y motivación.

BIGARRENA. ALDEEN BETEBEHARRAK

SEGUNDA- OBLIGACIONES DE LAS PARTES

Irungo Udalak 37.500 euro transferituko dizkio Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A.ri, hiru pertsona aldi baterako kontratatzeko, proiektu hauetarako:

1. Hornikuntza eta saneamedu-sareetako erabilera anitzeko 2 langileak: 25.000 euro
2. Finantza- eta merkataritza-sailaren administrazio-laguntza: 12.500 euro

El Ayuntamiento de Irun transferirá a Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A. la cantidad de 37.500 euros destinada a la contratación temporal, por parte de esta última, de tres personas:

1. 2 Operarios/as polivalentes redes de abastecimiento y saneamiento: 25.000 euros
2. Apoyo administrativo departamento financiero y comercial: 12.500 euros

Era berean, Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A.k hiru pertsona kontratatzeko konpromisoa hartzen du Lanbide Enplegurako Euskal Zerbitzuko Zuzendari Nagusiak 2025ko uztailaren 15ean emandako ebazpenean enplegua sustatzeko programarako ezarritako esparruan eta baldintzekin, zeinaren bidez argitaratzen baita enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen 2025. ekitaldirako deialdia, eta betiere ebazpen horretan ezarritako betekizunak betetzen badituzte.

A su vez, la Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A. se compromete a la contratación laboral de tres personas en el marco y bajo las condiciones establecidas, para el programa de fomento de empleo, en la Resolución de 15 de julio de 2025, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2025, y que reúnan los requisitos establecidos en dicha Resolución.

Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A.k kontratazio horiei buruzko informazio osoa emango dio Irungo Udalari, eta haiekin lotutako jarduerak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean justifikatzen lagunduko dio. Ildo horretatik, eskatzen dion dokumentazio guztia emango dio Irungo Udalari, eta aipatutako langileen kontratazioari eta jardunari dagokionez ematen dizkion jarraibideak beteko ditu.

Para ello, la Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A. proporcionará al Ayuntamiento de Irun cumplida información acerca de estas contrataciones, y colaborará con el mismo en la justificación de las actuaciones ligadas a las mismas ante Lanbide-Servicio Vasco de Empleo. En este sentido, facilitará al Ayuntamiento de Irun toda documentación que éste le requiera, y cumplirá con las indicaciones que le fuesen realizadas por parte del primero respecto de la contratación y desempeño laboral del personal afectado.

Irungo Udalak ez ditu hartuko bere gain kontratazioek Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A.ri sor liezazkiokeen lan-kostu gehigarriak, inolaz ere, eta inolako lan harremanik ere ez du izango kontratatzen diren pertsonekin.

El Ayuntamiento de Irun no se hará cargo del coste laboral adicional que estas contrataciones pudieran suponer para la Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A., en ningún caso, ni mantendrá vinculación laboral alguna con las personas objeto de las mismas.

HIRUGARRENA. DIRULAGUNTZA ESKAERA ETA KOBRANTZA

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2025ko uztailaren 15ko ebazpenean xedatutakoaren arabera, haren bidez argitaratzen baita enplegua sustatzeko 2025ko ekitaldirako tokiko ekintzetarako laguntzen deialdia, Irungo Udalak izapidetuko eta kudeatuko ditu diru-laguntza eskaerak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean, eta udalean zentralizatuko da dagozkion laguntzen kobrantza, hala badagokio, baita haren enpresa laguntzaileek zuzenean kontratatzen dituzten langileei dagozkienena ere.

TERCERA- SOLICITUD Y PERCEPCIÓN DE LA SUBVENCIÓN

Conforme a los dispuesto en la Resolución de 15 de julio de 2025, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo, las solicitudes de subvención ante Lanbide- Servicio Vasco de Empleo serán tramitadas y gestionadas por parte del Ayuntamiento de Irun, y la percepción de las ayudas correspondientes, en su caso, serán centralizadas en dicha entidad, incluso las correspondientes al personal que hubiera podido ser contratado directamente por parte de las empresas que colaboren con el mismo.

LAUGARRENA- DIRULAGUNTZAREN KOBRANTZA

Irungo Udalak bi alditan ordainduko dio Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A.ri beronek egiten dituen kontratuengatik kobratzen duen diru-laguntzaren zati proportzionala:

- Lehenengoa, zenbatekoaren % 53, hitzarmen hau sinatu ondoren eta 2025ko bigarren seihilekoan, Lanbidek ordainketa egindakoan.

- Bigarrena, gainerako % 47a, langilearen kontratua amaitu, Irungo Udalari sortutako gastuak justifikatu eta Lanbidek aldeko

CUARTA- FORMA DE PAGO

El abono, por parte del Ayuntamiento de Irun, de la parte proporcional de la subvención percibida por las contrataciones realizadas por la Txingudiko Zerbitzuak-Servicios del Txingudi S.A., se producirá en dos veces:

- La primera, por el 53% de dicho importe, tras la firma del convenio y a lo largo del segundo semestre de 2025, una vez recibido el primer abono por parte de Lanbide.

- La segunda, por el 47% restante, tras la finalización de la contratación de este personal y previa justificación de los gastos incurridos al

Ayuntamiento irun Udala
www.irun.org

ebazpena eman eta ordainketa egindakoan.

Ayuntamiento de Irun y una vez se reciba la resolución favorable y el pago de Lanbide.

<u>BOSGARRENA. INTERPRETAZIOA ETA APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA</u>

Hitzarmen honen klausuletan aurreikusi ez den guztirako, aldeek Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2025ko uztailaren 15eko Ebazpenean xedatutakoa bete beharko dute, zeinaren bidez argitaratzen baita enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2025ko ekitaldirako laguntzen deialdia. Horrez gainera, honako hauek ere bete beharko dituzte: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatzen dena (2003/11/18ko BOE) eta ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan xedatzen dena, zeinaren bidez onesten baita Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua (2003/07/25eko BOE).

<u>QUINTA- INTERPRETACIÓN Y NORMATIVA APLICABLE</u>

Para lo no previsto en el clausulado del presente convenio, las partes habrán de atenerse a lo dispuesto en la Resolución de 15 de julio de 2025, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo, así como en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, (BOE 18/11/03) y en el Real Decreto 887/2006, de 21 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley, General de Subvenciones (BOE 25/07/06).

Eta horrela jasoa gera dadin, alderdiek adierazitakoa onartzen eta berresten dute, dokumentu hau elektronikoki sinatuz, behin behineko Idazkaria naizenez sinaduraren prozeduraren oniritziarekin, horren fedea ematen dut.

Y para que así conste, los otorgantes se afirman y ratifican en lo expuesto, firmando electrónicamente este documento, con el Visto Bueno del proceso de firma de la Secretaria accidental, que da fe.

ALKATEA/LA ALCALDESA

CRISTINA LABORDA
Firmado digitalmente por CRISTINA LABORDA
Fecha: 2025.12.22 14:27:18 +01'00'

Fdo.: Dña. Cristina LABORDA and.

GERENTE DE TXINGUDIKO ZERBITZUAK-SEVICIOS DEL TXINGUDI S.A.ko KUDEATZAILEA

LEIRE ZUBITUR (R: A20214011)
Firmado digitalmente por LEIRE ZUBITUR (R: A20214011)

Fdo.: Dña. Leire ZUBITUR and.

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA / LA SECRETARIA ACCIDENTAL

ANA BELEN ARISTIZABAL
Firmado digitalmente por ANA BELEN ARISTIZABAL
Fecha: 2025.12.23 10:03:41 +01'00'

Fdo.: Dña. Ana Belén ARISTIZABAL and.